

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Patxi Alaña

*Ubide, Bizkaia
(1961)*

Aurkibidea



Biografia



Zintak

UBI-007

- **Proiektua:** Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Mendibil, Gontzal
- **Data:** 2013-11-23
- **Iraupena:** 9 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Kapanaga Arantzazun egin zen Euskeraren Jatorria Elkartearen I. Biltzarrean

- **Erref:** UBI-007/001
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak

Laburpena:

Euskeraren Jatorria Elkarteak Kapanagari eta Imanol Mujikari egin zien omenaldi zela-eta ezagutu zuen Bittor. Bisitatzea joan ziren Otxandiora; bere obra aztertzen hasi eta oso interesgarria iruditu zitzaion. Arantzazun egin zen Lehenengo Biltzarrera eraman zuten. Oso aberasgarria izan zen biltzarra. Harrezkero zortzi biltzar egin dira. Asko ikasi dute tarte horretan; esaterako, irekita egon behar dela ideia berrietara. Kapanagak, zenbait arlotan, sinonimia dagoela ikusita, zenbait erro kanpotikoak izan daitezkeela esaten zuen. Iz,ur, -gar... Seguroa, Zubiaga eta beste batzuk ere jardun dute azterbide horietan eta goraiatzekoa da euren lana ere.

2. 'Euskera' zaharragoa eta jatorragoa 'euskara' baino

- **Erref:** UBI-007/003
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:03:54. **Bukatu:** 00:07:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Bittorrek esaten zuen 'euskera' zaharragoa dela 'euskara' baino, hor daudela 'hizkera' eta abar. Eta Euskaltzaindiak hautu okerra egin zuela 'euskara' eta 'erdara' aukeratzeko. Kontuan izanda gainera kanpoko hizkuntzak izendatzerakoan -era hautatu zela: sumeriera, egiptoera... Ugazabaren etimologiaz: ugatz + ama.

3. Aurrera egiteko beharrezkoa da atzera begiratzea

- **Erref:** UBI-007/004
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:07:25. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Bittorrek erakutsi zigun aurrera joateko beharrezkoa dela atzera begiratzea. Churchil-en esaldia; eta dantzarien esaera: "Atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu". Gure arbasoek bizitzari nola aurre egin zioten ezagutzen badugu, tresna ezinhobeak izango ditugu etorkizunari aurre egiteko.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com